

SARRERA

Gu Hondarribiko gazte talde bat gara (GeryGou S.L) eta erabilgarria den zerbait sortu dugu denon artean, gaur egun oso praktikoa izan daitekeena. Hainbat ideia izan genituen, baina baztertuta gelditu ziren asmatutako produktu hau pentsatu ondoren.

Gure produktua, botila magnetiko bat da, baina hainbat berezitasun ditu eta horregatik beste botiletatik bereizten da. Berria da merkatuan eta oso erakargarria da produktu eskusiboa delako. Botila hau besteekiko ezberdina da, honi esker zure mugikorra botilari itsatsi diezaiokezulako eta horrela erabilpen ezberdinak emateko aukera eskaintzen du. Alde batetik pentsatzen dugu botila bat egunerokoan oso erabilgarria dela, eta mobila gehitzeko ideia asko gustatu zitzaigun. Horrezgain, gaur egungo botila gehienak plastikozkoak dira eta ondorioz planetarentzako eta itsasorako oso kaltegarriak. Horregatik pentsatu genuen inola ere ez genuela plastikoa erabiliko. Horregatik metalezkoa da, eta gainera erabilpen handi bat eman ondoren itzultzeko aukera dago, ondorengo botila bat merkeago erosi ahal izateko. Hala ere hau sakonago azalduta dago.

Botila magnetikoa denez, mobila itsatsi dezakegu grabatu ahal izateko, gainera botilak kargagailu inalanbriko bat erantsita dauka eta itsatsita dagoen bitartean kargatzen ari da. Eta horrez gain, gaur egungo interes eta eskariarekin bat dator. Azken batean, botila honek jendearen egunerokoa errazten du. Praktikoa da bai lan arloan adibidez.

Gimnasia joatearakoan influencer gehientzako oso interesgarria izaten da zure burua grabatu ahal izatea, eta normalean ez da erraza izaten modu egoki batean kokatzea, horregatik botila honek mugikorra iman bidez itsatsita duenez, influencerrek beren burua modu erosoan grabatzeko aukera izango dute. Bestalde botila honek bi erabilera ezberdin izan ditzake. Mugikorra modu konstatean kargatzen egongo da, horrela egunean zehar ez duzu entxufatu beharko eta ez duzu ez mezu ez dei garrantzitsurik galduko.

Ematen dituen onura guztietaz aprobetxatzeko; mundu guztiak edaten du ura eta beraz oso praktikoa da botila bat eskura izatea egun guztian zehar. Gainera, mundu teknologiko honetan gaur egun mugikorra mundu guztiak erabiltzen duen aparatu bat da, eta horregatik ideia ezinhobea da botila eta mugikorra elkarrekin edozein lekutara eramateko aukera.. Gainera, mugikorra botilari lotuta egotea, lanerako edota grabaketak egiteko oso praktikoa da, bideodeiak inungo oztoporik gabe egiteko aukera ematen baitu.

Hurrengo dokumentuetan atalez atal azalduko ditugu barne eta kanpoko egiturak zehazki.